

Gazteburuen hasiera paregabea



Jon Lasak jasoko du Ttakun Saria

Lehenengo Ttakun Saria Jon Lasa musikari eta irakasleak jasoko du azaroaren 28an kultur elkarteko bazkideen afarian. Sarituak hainbat urtetan herrian euskal musika eta euskal kultura zabaltzeko egindako lana nabarmendu du Kultur Elkarteak /4

Lehenengo larunbatean, Lasarte-Oriako 9 eta 12 urte arteko gaztekoek arratsalde paregabea igaro zuten *Gazteburuen* lehenengo ekimenari esker.

Udako Txoko eta Kanpaldietako lagunekin aurkitu eta haiekin ondo pasatzeko aukera izan zuten Kultur etxera hurbildu ziren herriko gaztekoek.

Udan igarotako momentu barregarri eta dibertigarriak gogoratu zuen arratsaldea. Izan ere, talde bakoitzak udalekuetako argazkien emanaldia ikusi baitzuten.

Ostean, begiraleekin solasaldia egin eta kafetegira abiatu ziren guztiak. Orduan, *Gazte klubeko* gaztekoak guztiak batu eta berbenari hasiera eman zitzaion.

Bi orduz kafetegia musika, dantza eta jokoz bete zen. Guztiak, bai gazteko, baita begiraleek ere, gozatu zuten arratsaldez eta hurrengo *Gazteburuen* zain daude orain. •



Gaztekoek kafetegian egin zen berbenaz ederki gozatu zuten. Honetan, jokoak, musika eta merienda izan zuten.

Santa Zezilia eguna ospatzen

Santa Zezilia eguna igandean, hilaren 22an bada ere, atzo bertan hasi ziren herrian, musika eta musikarien eguna ospatzen.

Musikaren alaitasuna herriko kale guztietara zabalatzeko asmoz, Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak, atzo arratsaldeko 18:00etan kultur etxetik kalejiran irten ziren.

Ospakizunekin jarraikiz, igandean, Alboka Abesbatzak Arantzazuko Amabirjinaren elizan 12:30etako meza girotuko du eta, astelehenean, Musika Eskolak kontzertu ederra eskainiko du arratsaldeko 19:30etatik aurrera Manuel Lekuona kultur etxean. •



KULTURA/ 3

Bertsolari Txapelketa Nagusia aztergai izan zen Xirimirin

KULTURA/ 3

Pilar Catalina sopranoaren emanaldia bihar kultur etxean

KIROLA/ 6

Atletismoko harrobia gaitasunez betea Lasarte-Orian

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845
Lasarte-Oria



Neure kabuz



Krisia eta hipokrisia

Esikutik doaz, bai, krisia eta hipokrisia, ezinbestez gainera, kapitalismoaren berezko osagaiak baitira biak. Hala ere, ekaitz bezala, tsunami bezala, berez sortzen den fenomeno bat bezala aurkezten digute orain. Ba, ez. Absurdoaren maisua ez zen Marx abizeneko batek duela mende eta erdi jada aztertu zuen gain-produkziozko krisia zer den. Eta ez da eguraldi kontua. Ez da kasualitatez ematen den gertaera.

Oinarrian, krisia gizarte-ko produktioan dagoen anarkiaren -planifikazio faltaren- ondorioa da. Jabetza pribatuaren oinarritzen den ekonomian ekoizleen helburua ez da ez populazioaren beharrezkoak asetzeari. Iberdrolaren helburua ez da jendeari argia ematea. Eraikuntza arloko enpresena ez da etxebizitza eskubidea bermatzea. Etekinik ez badago, ateak itxi eta ben-hur. Komunikabide burgesetan begia ez jarri eta berehala ikusten da errealitate hori. Hartu, adibidez, unibertsitatean hasiberrirentzako erabiltzen den teoria ekonomikoko edozein testu: modelo teoriko guztietan ekoizleen helburua etekinak lortzea da. Kito. Ez lanpostuak sortzea ez kristo. Etekinak. Zurito bat kontrako adibide bat topatzen duenarentzat. Zuritoa ez, piszina bat xanpain.

Ez, krisia ez da kasualitatezko gertaera. Krisia indarrean dagoen antolakuntza ekonomikoaren saihestezinezko ondorioa da. Adi, beraz. Perlesiak jota dago kapitalismoa, bai, baina, laguntzarik gabe, ez da berez hilko.

Pablo Barrio

Zorion-agurrak



Irati

Zorionak printzesa zure 4. Urtebetetzean. Muxu potolo bat guztion partetik.



Nika

Zorionak Super-Amona! Zure monumetua jartzeko dira Okendoko obrak!



Leire

Txokolatetzko bost muxu. Iraia, aitaxo eta amatxoaren partetik.



Saioa

Zorionak zure 2. urtebetetzean printzesa. Johana, aita-ama eta familia guztiaren partetik.



Haritza

Zorionak txingurri! Amatxo, aitaxo eta Eneritzen partetik. Muxu handi bat



Joseba

Zorionak guapo! Segi horrela eta mantendu horren ondo!



Aimar

Zorionak eta txokolatezko hiru muxu. Familia guztiaren partetik.



Ibai eta Urko

Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik!

Guardiak

- Ostirala, 20**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549
- Larunbata, 21**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Igandea, 22**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Astelehena, 23**
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567
- Asteartea, 24**
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652
- Asteazkena, 25**
De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151
- Osteguna, 26**
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Telefonoak

- Osasuna / Larrialdia**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutzegia ... 943 363953
- Udalzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia ... 943 376182
- Kulturetxea ... 943 376181
- Bakezko epaitegia ... 943 371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
- Zentro Zibikoa ... 943 363958
- KIUB ... 943 361605
- Udal euskaltegia ... 943 361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Etxebizitza alokatzen da: 2 logela, sala eta jangela. Altzariekin dago eta berogailu zentrala du. Abala eskatzen da. Harremanetarako zenbakia: 649 526 766.

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaia eta berri berria. Bikotearentzat egokia. Harremanetarako zenbakia: 657 708 866.

Salerosketak

• Radio CD Pioneer saltzen da. Altabozak bandejan sartuta (barne) daude. Golf Serie III-entzat aproposa. Harremanetarako zenbakia: 653 732 121.

Lan-eskaintzak

• Aisialdirako begiraleak behar dira, astean bitan, Donostian eskola batean euskarako klaseak emateko. Interesatua egonez gero, kurrikuluma honako helbidera bidali mldonostia@mondra-gonlingua.com.

• Pertsona bat eskeintzen da etxeko garbiketa lanak egiteko eta pertsonak zaintzeko. Harremanetarako telefono zenbakia: 680 785 548.

• Pertsonak zaintzeko eskeintzen naiz baita kristalak garbitzeko ere. Harremanetarako telefono zenbakia: 638 096 411.

Lan-eskariak

• Ingelesko magisteritzako 3. Mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelesa edo beste ikasgai batzuk). Interesatuak deitu zenbaki honetara, 943372874/635720017 Urzti.

• Pertsona bat eskeintzen da erizaintza lanetan eta geriatría lanetan aritua. Telefonoak: 943 36 88 08 edo 637 006 786.

• Umeak edo pertsona adinduek zaintzeko eta garbiketa lana egiteko prest dagoen emakumea. Telefonoa, 671 788 303.

• Klase partikularrik ematen dira: euskara, lengoaia, matematika, ingelese... Harremanetarako telefonoa: 943 36 25 32.

• Pertsona adinduek etxean edo kalera ateratzen laguntzeko emakume bat eskeintzen da. Telefonoa, 626 641 155 (Maria Jesus).

Bestelakoak

• Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. Harremanetarako zenbakia, 690 784 113.

• Katuak oparitzen dira. 6 katu ditut oparitzeko, hilabete inguru dute eta arraza arruntekoak dira. Telefonoa: 647 821 361.

Oharrak jartzeko:

www.txintxarri.iragarkilaburak.com
txintxarri@txintxarri.info • Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

Jaiotzak
Aitana Moncera Echeverria, azaroaren 14ean

Heriotzak
Antxoni Martin Largo, azaroaren 11ean 96 urte zituela
Benigno Carte Uriz, azaroaren 11ean 86 urte zituela

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Txakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriak ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Bertsolaritzaren ertzak biribiltzen

■ Hamabost lagunek parte hartu zuten Ttakunek antolatutako bertso-tertuliako eztabaidan
 ■ Txapelketa Nagusiaren zirrikitu ezberdinetaz hainbat azalpen interesgarri eman zituzten

TXINTXARRI

Maialen Lujanbioren saio eta bertso sorta bikaina, Silveirak egindako potoak, Muñoaren gaizki ulertua, eta Txapelketa Nagusiko beste hainbat irudi eztabaidagai izan ziren asteartean Xirimiri elkartearen burutu zen bertso-tertulia. Zizka-mizka batzuek janaz, Hitzetik Hortzerako lan taldeko kide batek prestatutako bideoak eman eta komentatu ziren. Bertsolaritzaren arlo edo ertz ezberdinei buruz asko ikasi zutela adierazi zuten berriketaldia ondoan bertan izan ziren batzuk. Lehen bertso tertulia izan zen asteartekoa, behin finalerdiak bukatuta abenduaren 1ean egingo da bigarrena eta finalaren ondoren hirugarrena.



Unai Muñoak parte hartu zuen bertso tertulia eta hausnarketa oso interesgarriak plazaratu zituen.

Arratsaldeko 20:00etan hasi eta 23:00ra bitartean hiru orduz luzatu zen bertsolaritzari buruzko solasaldia eta Xirimiritik atera ondoren Jalgin jarraitu zuen. Nork irabaziko duen aurtengo Txapelketa Nagusia, Egaña zein aldarerekin iritsiko den, zenbat emakumezko sartuko diren finalean, bertsoa etortzetik ekartzera dagoen aldeaz, hasiberriek ustekabeak ematen segituko ote duten... hausnarketarako eta eztabaidarako gai eta galdera asko izan ziren bertsozaleen artean.

Solasaldia antolatzen arituen Ttakun Bertso Eskolako Joxe Kruz Labakak edota txapelketan parte hartu duen Unai Muñoak iritzi sakon eta interesgarriak eman zituzten, azkenak bertsolariak ezagutzen dituenaren eta oholza gainean egon denaren ikuspegitik. Beraren zenbait bertso-aldi ikusi ziren Xirimiriko Hitzetik Hortzera partikularrean, Arkaitz Estiballes-ekin Uztaritzen zortziko txikiak egindakoa esaterako. Ondoren nabarmendu zuten sarri bertsolariek, elkarrizketa

baino bakarriketa egiten dutela, hau da ez diotela lagunak esandakoari erantzuten. Horrek puntuak eragin handiagoa izan beharko lukeen ala ez eztabaidatu zen. Honen beste adibide bat ikusi zen Xabier Paya eta Aitor Sarriegi Uztaritzen egindakoa. Payak puntuazio altuena eskuratu zuen baina ez zion lagunari bertso batean ere erantzun.

Uztaritzen Unai Muñoak erantzundako puntuak ikusi ziren ondoren, baita Amaia Agirre eta Asier Otamendik Bil-

bon zortziko handian egindako saioa edota Onintza Enbeitak eta Iñigo Eizagirrek bi musikariren paperean egindakoak. Tartean noski Xirimirin elkartu ziren bertsozaleen komentarioak. Txapelketan zehar izan diren une gogoangarrietako batzuk ere eskaini ziren, Xabier Silveirak Zarautzen kartzelako hiru bertsoetan egindako hiru potoak, Aitor Mendizule eta Beñat Gaztelumendik Bergaran seikoan egindako saioa eta Maialen Lujanbiok finalaurre berean kartzelako ariketan

Mikel Laboaren abesti bat doinu gisa erabiliz egindako hiru bertso bikainak. Honekin amaitu ziren bideoak baina ez eztabaidak.

Berriketaldian izan ziren denek egin zuten ekarpenen bat, iritzi simple edo hausnarketa sakona, epaimahaikoen lan zailaz, Maialen eta Egañaren dohain eta bertsokeretaz, bertsolariek gaurkotatzen jabetu beharraz, bertsolariek zabalzten duten mezuaz eta hori epaitzeko aukeretaz, saioetara joaten den gazte koadrila kopuruaz, elkartearen lanaz...

Eta besteak beste Txapelketa Nagusiak izan duen oihartzuna ere jorratu zen, 2005eko txapelketan eman zen saltoa, erdal guneari bertsoa zabalduz, finala BECera eramanez (Barakaldon izateak sinboliko ki duen garrantziaz...) TVE eta ETB2 programa bat edo txapelketaren jarraipena eginaz...

Solasaldia amaitu eta laster hasi ziren bertsozaleen arteko apustuak, desberdinak bihotz eta buruaren arabera, batzuk Egañaren alde, besteak Maialenen edo Ametsen alde. Abenduaren 13an Barakaldoko BECen erabakiko da goiz eta arratsalde. Sarrerak, bertan bazkaltzeko eta autobusez joateko txartelak, www.txapelketanagusia.eu edota www.bertsosarrerak.eu webgunean eskuratu daitezke. •

Pilar Catalina sopranoa bihar Kultur etxean

Pilar Catalina soprano lasarteoiatarrak, Amaia Zipitria pianojole laguntzaz, bihar arratsaldeko 20:00etan kontzertua eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean.

Hauetaz gain, Amaia Lizarragak, Pilarren alabak ere laguntza eskainiko du abesti batean duela eginez.

Bi zatitan, operatako ariak,

liedak eta madrigalak, hala nola, *¿Con qué la lavaré?* edo *Stizzoso, mio stizzoso* eta *Haurtxo txikia* edo *Maritxu nora zoaz* abesti herrikoiak entzuteko aukera izango dute bihar kultur etxera bertaraten diren guztiek.

Aukera paregabea honelako kantaldia zuzenean, doan eta herrian bertan entzutekoa! •



Pilar Catalinak ariak, liedak, madrigalak eta abesti herrikoiak eskainiko ditu.

IKASTAROA

Janari-manipulatuak karneta

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Sailarekin elkarlanean, arrisku handiko janari-manipulatuak karneta ateratzeko ikastaroa emango du, ostalari-tza arloari zuzendua.

Ikastaroa azaro honen 30ean eta abenduaren batean emango da, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan, 16:00etatik 19:00etara izango da.

Informazio gehiago jaso zeko edo izen emateko, deitu 943 533 303 telefonora. •

HAURRENTZAKO ZINEMA

Filmaren aldaketa

Banatuzailearen arazoengatik, igandean, *Short La Piedra Mágica* filma zinema-emanaldia izango da. Honela, *Vickie Bikingoa* euskarazko emanaldia azaroaren 29ra atzeratzen da. •



Arg.: Arriaskalleta elkarteak

Ezkerretik, Josema Hernando, Julian Loiarde, Imanol Rekondo eta Tomas Pascual.

Rekondo eta Loiarde irabazle Arriaskalleta Elkarteak Mus txapelketan.

Arriaskalleta elkarteak pasa den larunbatean, azaroaren 14an, bere lehenengo Mus Txapelketa burutu zuen. Giro ederrean hamar bikote lehiatu ziren elkatean txapela eta sariak eskuratzeko. Final estuan Julian Loiarde eta Imanol Rekondok Tomas Pascual eta Josema Hernando menderatu zituzten. •

Jon Lasak jasoko du Ttakun Saria

- Hainbat urtetan euskal kulturaren "zerbitzari" izan dela nabarmendu du Ttakun Elkarteak
- Kultur elkarteko bazkide eta lagunak daude azaroaren 28an egingo den afarira gonbidatuta

Jon Lasa musika irakasleak jasoko du azaroaren 28an Txixardin Beltxa jatetxean egingo den bazkideen afarian lehenengo Ttakun Saria. Lasak hainbat urtetan herrian euskal musika eta euskal kultura zabaltzeko egindako lana nabarmendu du Kultur Elkarteak sarituaren berri ematerakoan. "Herriari begira egin du lan, herriko ekitaldietara eraman ditu euskal musika eta herriko musikariak. Beraz herriaren zerbitzari izan da eta horregatik emango diogu Ttakun saria, hain zuzen, 32 urte ondoren ikastolako irakasle gisa erretiratu den urtean".

JON ALTUNA

1 50 lagunentzat toki izango da Txixardin Beltxan Ttakun Saria banatzeko egingo den bazkideen eta adiskideen afarian. Kultur Elkarteak urtero banatuko du Saria, euskara edota euskal kulturaren alde herrian zerbait berezia egin dutenak omentzeko helburuarekin. Aurten esan bezala Jon Lasari ematea erabaki du Ttakuneko Zuzendaritzak, baina elkarteko ordezkari batek azaldu digunez hurrengo urtetan bazkideei omendua hautatzeko aukera eskainiko zaie eta hautagaia zein izan daitekeen esateko eskatuko zaie.

Ttakun Kultur elkarteko ordezkariak Jon Lasari ematearen arrazoi nagusiak laburbildu dizkigu: "Ttakunekiko eta oro har herriarekiko oso jarrera ona izan duen pertsona bat da, oso entregatua izan da beti herriaren zerbitzuan. Berak ikastolako irakasle izateaz aparte, beti egon da ikastolatik kanpo egin diren

euskal kulturako ekitaldietan lanerako prest. Gabonetan, Santa Eskean, Maratoian, urtero sanpedrotan, edozein ekitaldi antolatu denean. Gainera omenaldia ikastolako lanetik bere erretiroarekin bat dator eta beraz hau zen momentua guk ere eskertza hori egiteko".

Lasarte-Orian omentzeko moduko hautagai asko dagoela uste du Ttakunek Kultur Elkarteak, "jende asko dago euskararen alde eta euskal kulturaren alde maila oso ezberdinetan gauzak egiten dituen, eta saritua izan daiteke, pertsona bat, erakunde bat edo bat baino gehiago. Aurten hala tokatu da, Jon Lasa izango da lehenengoa, baina ez du esan nahi beti horrela izango denik".

Ttakunkideak elkartu

Ttakun Sariak sortzean Ttakun Kultur Elkarteak daukan helburu nagusia, bazkideak elkartu eta hauekin bat egitea da, "urtean behin elkartzeko aitzakia" da. Zuzendaritzak urtean zehar egindakoaren



Iparragirrenen gisara bere gitarra zahartxoa edo trikitia eskuetan hartuta ibili ohi da Jon Lasa euskal kultura zabalduz.

berri emateko baliatuko du gainera afalostea, "modu arin eta informalean egingo bada ere, jendeak egindako lanaren ondorioak atera ahal izango ditu" eta bestalde, Ttakun beti entzuteko prest dagoenez, proposamenak egiteko aukera ere izango dute bazkideek.

"Bazkideak aktibatuzeko modu bat da, kezkatzen dituen gauzak eta baita gusturik dituenak botatzeko toki izan daiteke" adierazi dute Ttakuneko ordezkari eta Sarien antolatzaileek. Ttakunkideek elkarrekin afaltzeko aukera izango dute beraz,

hilaren 28an 21:00tan hasita Txixardin Beltxa jatetxean.

Afaria, showa eta dantza

Afaria berezia izango da, afalostean ekitaldi berezia burutuko da, show eta dantzaldia, eta menua ere berezia da: foie, porru eta ganbez betetako hoyaldea, txangurroz betetako krepa, zapoa edo azpizuna aukeran, tarta eta izozkia. Edaria, kafea eta kopa barne 30 euro balio du. 16 urte artekoen menuak (urdaiazpikoa, krocketak, solomoa patata frijitu eta piperrekin eta izozkia) 10 euro balio du.

150 lagunentzat denez txartela lehenbailehen hartzea hobe lekua ziurtatzeko. Ttakun elkartearen bulegoan daude txartelak salgai azaroaren 25era bitartean aurretik agortzen ez baldin badira behintzat. Afaria ez dago bazkideei mugatua, hau da, bazkide ez direnek ere aukera dute afarira joateko.

Afalostea ere berezia izango da, eta Euskararen Maratoiko afalostetan sortzen den antzeko giroa izango dela adierazi dute antolatzaileek. Show-ean beraz herriko "artistek" parte hartuko dute. •

Gizon bizardun bat umez inguratuta

Gizon bizardun bat, gitarra edo soina, eta inguruan ume pila bat. Hori da azken urteotan Jon Lasaren irudia edo berataz lasarte-oriar gehienok dugun irudia. Ezin beste era batera ulertu. Jon Lasa eta jolasa hosiak dira, eta musika jolas izan daitekeela, jolastuz ikasi daitekeela, musika eta jolasa uztartu daitezkeela erakutsi du urteotan. Ez da ohiko konterbatorioko musika irakaslea izan, ez du hori izan nahi, musika herrian jotzeko tresna

gisara landu du eta festatan jotzera eraman ditu ikasleak Inauteri, Santa Ageda, Eguberri, Korrika edota Maratoian...

Nafarra sortzez

Lizarragan, Sakana bailaran Etxarri Aranatz-etik hurbil sortua, Altsasuko seminarioan zaletu zen musikarekin, gero 32 urtez aritu da Landaberi ikastolan musika irakasle, baina ikastolako hormetatik kanpo ere musikari izan da, lasarte-orrian urtean zehar antolatzen diren ekitaldi



gehienez girotzen. Amaluz musika eskola sortu zuen duela zortzi bat urte eta ehundaka herritarrek ikasi ditu musika eta musika tresnak

eskola honetan. Landaberrikoak kontuan izanik milaka dira bere eskutatik pasa diren ikasleak, "herriko gazteen ehuneko 70" Jon Lasa berak aipatu izan duenez. Aurten erretiratuko da lanetik, edo berak dioen moduan, "erretiratu baino, nire motorraren martxa aldatu egingo dut, martxa mantsuagoa jarri".

Herriari begira egindakoa

Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta berak argi erakutsi du hori, herriaren egiten diren kultur agerrialdietara eraman baititu bere musika, eskolako ikasleak, euren gitarra, trikiti, pandero eta euskal giroa. Kantuaren eta euskal kantuen bultzatzaile ere izan da, bere ustez ahotsa da

dagoen musika tresnarik ederrena, denok daukaguna eta erabili dezakeguna.

Euskararen maratoian zortzikoteko kide izan zen duela urte asko, eta beti parte hartu du era batera edo bestera. Bere iritzi, argi eta garbi erakusten du maratoiak Lasarte-Orian gaitasun handia dagoela. "Oso herri gubixtan egingo dira hainbeste ekintza, herriak erantzun egiten du. Festetan erraxagoa da gauzak kanpotik ekartzea; eskatzen dutena eman eta kitto. Baina festa herriak berak egiten duenean, orduan politagoa da".

Eta Jon Lasari esker bertako musika eta bertako musikariak izaten dira herriaren antolatzen diren ekitaldietan. Bera euskal kulturaren zerbitzuan izan da hori erakutsi du. •



AMARA PLAZA HOTELA Goretzi Alzela kalitatearen arduraduna eta Raül Fernández Acha zuzendaria

Kalitate turistikoaren 'Q'á

Zeintzuk dira turismoarekin lotura duten kalitate-sistema eta programen aldeko apustua egiteko arrazoi nagusiak?

1998.ean gure enpresan kalitate sistema jartzeko aukera aztertzen hasi ginenerako, sistema hauek jada finkatuak zeuden beste sektore batzuetan, esaterako industriagintzan, baina ez gure arloan. Beraz, martxan jartzea egitasmo berritzaile eta bereiztaile gisara hartu genuen, lehiakortasunerako marketin-tresna gisara alegia, eta batez ere kalitate sistema gure barne antolakuntza hobetzen lagungarri izango den lan tresna izango zela ikusi genuen.

Zuen erakundeari zer nolako abantailak eman dizkio kalitate turistikoaren ziurtagiri sistema izateak?

Abantaila nagusia, jada aipatu duguna da, ziurtagiriaren sisteman izateak antolaketa tresna bat izatera derrigortzen zaitu, hau da, gure lan sistematika finko batean oinarritzen gara (nork? Nola? Noiz? Non? egiten du lan bakoitza). Beraz, zerbitzu homogeneizatu eskaintzen da eta horrek produktuen bikaintasunean eragin zuzena du.

Lan sistema bat jada ezarria eta finkatua denean (eta guk ISO 9001 eta Q arauaren araberrako lan sistema eta ziurtagiriarekin lanean dihardugu azken 9 urtetan) batetik prozesu guztiak kontrolpean daukazu erabat, bestetik non hobetu daitekeen badakizu ondo eta beraz, erakundearengana hobetzen ari da.

Zeintzuk dira erakundearen barne antolakuntzan, kudeaketan eta azpiegiturretan hobekuntza nagusiak?

Barne hobekuntzari dagokionez, egunean eguneko planifikatuta dago, ez dago tarterik inprobisatzeko, norabide berean goaz denak.

Enpresaren kudeaketaren mailan, onura asko ekarri dizkigu, oso garrantzitsua deritzogu Giza Baliabideen Kudeaketa Prozesua hobetzea. Langileak enpresaren helburuak ezagutzen ditu, eta baita beregan dituen eraginak ere. Bere lanak beste sailekin duen lotura ezagutzen du langileak, taldeko lana da beraz. Lanen



Donostiako Amara auzoan dago Amara Plaza Hotela.

Eusko Jaurlaritzaren Turismoaren "Basquetour" Euskal Agentziarekin batera, eta Euskalitekin elkarlanean, enpresarien esku jarri ditu hainbat baliabide eta beharrezko den laguntza lehiakortasunean irabazteko, honako programa hauen bitartez:

- **Jarduera onak**
Kalitatearekiko sentsibilizazioa eta konpromisoa, turismo sektoreko profesionalen zuzenduta.
- **Kalitate Turistikoaren Q programa**
Kalitate kudeaketa sistemaren ziurtagiria. Bezeroen satisfakzioa aurreikuspenak beteko dituzten bermea.
- **EFQM bikaintasunaren eredu**
Kalitatearekiko bikaintasuna antolatzaileren eskura uzten duen programa.

JAR EZAZU KALITATE TURISTIKOAREN Q-A ZURE MERKATALGUNEAN

94 607 75 86 / 94 404 74 70
www.turismoa.euskadi.net / www.euskalite.net

erregistroak eta ebidentziak uzten ditu langileak, ondoren jarraipen bat egiteko eta izan daitezkeen akatsak zuzentzeko (Kalitatearen adierazleak).

Langilea informatua dago, eta bere zalantzak aurkezteko aukera du, barne iradokizunak (Komunikazioa Plana, Barne Iradokizunen Sistema) Bere eginbeharrekoa ongi betetzeko, langileari behar duen prestakuntza eskaintzen zaio (Formazio Beharren Diagnostika eta Urteko Formazio Plana)

Eta azkenik, azpiegitura alorrean, kalitateko eredu batzuk betetzeak, zure enpresako instalazioak, azpiegiturak, e.a. zaintzera behartzen zaitu eta inbertsioen bideragarritasuna baloratzen laguntzen du.

Bezeroaren gogobetetzea helburu duten hobekuntzak ere txertatu dituzue...

Eskaintza argitu egiten da, bezeroak eskatzen duena entzuten dugu eta eskaintzen dugu.

Gure bezeroen itxaropen eta beharretara egokitzen da gure zerbitzua. Bezeroak enpresaren hobekuntza sisteman parte hartzeko aukera du inkesten, iradokizunen, kexen... sistemaren bitartez.

Q marka duen produktuan edo zerbitzuan konfiantza izango du bezeroak, badakielako urtero ebaluatzen diren kalitateko estandarrak betetzen dituela.

Kalitate turistikoaren "Q"aren bila abiatzeko zein modutara zuzenduko zinateke turismo

sektore profesionalari?

Marka eskaintzen dizuten abantaila bakoitza azalduz eta kalitateko ziurtagiridun sistema batek burokrasia eta paper-nahaste handia eskaintzen duenaren tipikoarekin hautsiz.

Gainera orain babes handia dago Turismo Sailburuordetzatik eta Euskalite, eta Basquetour-en bidez, formazio saiokin, ate irekien jardunaldiekin... e.a. "Q" ziurtagiria ezartzeko orain hamar urte baino eraztasun handiagoak daudela uste dugu.

Ziurtagiria duten enpresen kopurua ugari egin denez, bezeroak jakin badaki nora doan, ziurtatu dezake helmuga kalitatekoa dela, hain zuzen ere, helmuga bultzatzen dugu.

Q ziurtagiriaren prozesuak zure erakundearen posizio lehiakorra areagotzen duela uste duzu?

Donostia bezalako toki batean egoterakoan eta balio erantsi gisa, kalitateko Q ziurtagiria izaterakoan, lehiakorrak egiten gaitu.

Kudeaketa planean landu eta ezarritako kompetentziatik, zeintzuk nabarmenduko zenukizue?

Gure enpresako bi prozesu estrategikoak, bezeroen oinarrituta daudenak (barrukoa eta kanpokoak). Bi prozesu hauek gure enpresa estrategiaren ardatz nagusiak dira: Bezeroaren asebetetzearen kudeaketa eta Giza Baliabideen kudeaketa.

Lehenengoaren kasuan, enpresaren jardun ezberdin bakoitzean, ostatu emate, sukaldaritza eta ikuskizunetan alegia, inkestak eta bezeroen iritzia (kexa eta proposamenak) jasotzeko sistema finkatuta daukagu. Behin informazioa jaso eta gero, datuak aztertuta eta ondorioak ateratzen dira. Ondorio horietatik sarri hobekuntzak sortzen direnez, gure bezeroen itxaropen eta beharrei erantzuten diegu.

Giza baliabideei dagokionez, Komunikazioa, Prestakuntza, Sustapena eta Aitorpena ditugu gure pertsonalaren Motibazioa lortzeko helburuarekin. Prozesu honekin egindako ahaleginaren emaitza bi urtez behin neurtzen dugu Laneko Giroari buruzko inkestarekin.

Kalitatearen kultura zabaltzeko, zein aldaketa txertatu duzue jada eta zein txertatzeko asmoa duzue?

Urte guzti hauetan sartu ditugunak eta etorkizunean sartzeko asmoa ditugun aldaketak asko dira. Ekonomi adierazleekin neurtutako lan sistema izanik, emaitzak erraz aztertzen dira eta beraz argi duzu non egin behar dituzun aldaketak eta zeintzuk diren lehentasunekoak.

Horrela argi daukagu ekonomia eta giza baliabideak zein gure inbertsio edota berriztatze-zaharberritzei dagozkienak nora bideratu ditzakegun edo nora bideratu behar ditugun. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 21

10:30ean, Ostadar-Antiguoko (Infantil txikiak, txapeldunen fasea) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Vasconia (Emakumezko Erregionala) Michelinen.

17:15ean, Texas Lasartearra-Intxurre (I. Erregionala) Michelinen.

10:30ean, Sporting de Herrera-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Herrera, Donostian.

13:45ean, Vasconia-Ostadar (I. Kadetea) Martutene, Donostian.

15:30ean, Munibe-Ostadar (Erregional Goren) Berio, Donostian.

17:30ean, Sporting de Herrera-Ostadar (I. Jubenila) Herrera, Donostian.

Igandea 22

11:00etan, Ostadar-Ilintxa (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

09:45ean, Beasain-Ostadar (Alebinak) Altamira, Ordizian.

11:30ean, Real Union-Ostadar (Emakumezkoen KDT F-I) Gal, Irunen.

12:30ean, Internacional Manteo-Ostadar (Partehartze infantilak) Matigoxotegi, Donostian.

FUTBOL 7

Larunbata 21

20:00etan, Ederra-Spartak de Obelix (III. Maila) Ugaldetxo, Oiarzun.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 20

21:00etan, Gorka Pinturas Makax-ISU leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Kiroldegian.

Larunbata 21

17:45ean, Aldaz H.K.-Elorrioko Buskantza (Nazional B maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelingo areto-futboleko gunean

Ostirala 20

20:30ean, Ainhoa-Ilargi

Larunbata 21

09:15ean, Biyona-ISU Leihoak

10:15ean, Lekuona-Mena-Morrison

11:15ean, IOB H.K.-Goiz Argi

12:15ean, Epel-Tragoxka

13:15ean, Naiban-Mingallon

15:00etan, Izarra-Oria kris.

16:00etan, Viña del Mar-Buenetxea

17:00etan, Danena-Jalai

Igandea 22

10:00etan, Izkiña-Obelix

11:00etan, Okela-Siglo XX

SASKIBALOIA

Larunbata 21

16:00etan, Jalai-Azkune (Gizezko seniorrak) Kiroldegian.

PILOTA

Larunbata 21

15:30ean, Zestoa-Intza 2 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.

15:30ean, Añorga-Intza 5 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Michelinen.

17:30ean, Intza-Alde Zaharra (Eskuz binaka III. Seniorra) Michelinen.

17:30ean, Intza-LAPKE (Eskuz binaka I. Seniorra) Michelinen.

16:00etan, Hernani 2-Intza 3 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

16:00etan, Urnieta 1-Intza 6 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

16:00etan, Alde Zaharra 2-Intza 1 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

16:00etan, Urnieta 2-Intza 4 (Eskuz banaka infantila 2. Urtea) Urnietan.

17:00etan, Intza 3-Urnieta (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.

17:00etan, Intza 2-Behar Zana 2 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Villabonan.

17:30ean, Intza 1-Gazteku 3 (Eskuz banaka alebinak 2. Urtea) Arrate, Andoainen.

ATLETISMOA

Larunbata 21

10:30ean, Landaberriko infantilak Partaidetza mugagabeko probetan parte hartuko dute, Anoetako belodromoan, Donostian.

JUDOIA

Larunbata 21

Egun osoa, LOKEko Iñaki Elizalde eta Esteban Martinez Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin Junior Liga nazionalen parte hartuko dute, Madrilen.



Amaia Andres entrenatzailea alebin eta infantil mailako atletekin gogor egingo du lan maiatzean guztiak prest egoteko.

Atletismoko harrobia gaitasunez betea

TXINTXARRI

Landaberri ikastolako, zein Usurbilgo eta Urnietako ikasle batzuk Amaia Andres eta Oskar Goikoezaren esanetara entrenatzen dute astero. Lehengo astean, txapelketa denboraldia hasi zen eta askorentzat bere lehengo proba izan zen. Amaia Andres entrenatzailearekin hitz egin dugu atletismo harrobiaren berri izateko.

Oso pozik agertu da Amaia Andres aurten sortu den taldearekin, "beste urtetan baina haur eta gaztetxo gehiago ditugu taldean, infantiletan 14, alebinetan 13 eta benjamintan ere beste 13. Gainera, guztiek gaitasunak dituzte eta oso langileak dira," azaldu du.

Maila bakoitzean prestakuntza ezberdina dela azaldu digu entrenatzaileak. "Benjaminetik jokoan bidez ikasten

dituzte kontzeptuak. Alebinek, berriz, bi denboraldi dituzte, krosa eta pista. Krosa ez dugu bereziki prestatzen eta pistan, proba guztietan trebatzen ditugu. Infantiletan, lehenengo urtea badute taldea egin eta probak ezagutu behar dituzte. Baina beste talde bat dago, esate baterako iaz Gipuzkoako txapeldunorde izan zirenak, espezializazioarekin hasiko direnak."

Honetaz gain, taldea egitea garrantzitsua dela azpimarratu du entrenatzaileak, "gehienguan bakarrik lehiatu behar zara eta maila hauetan talde bezala lan egitea garrantzitsua eta polita da. Horregatik errelebu taldeak prestatuko ditugu lehiaketetan parte hartzeko."

Lehenengo probak

Lehenengo astean, denboraldiko lehenengo probetan parte hartu

zuten gaztetxoek. "Alebinetaz lehiaketaren nondik norakoak ezagutzeko balio izan zuen. Infantilen kasuan, maiatzerako egon behar dute prest, beraz, prestakuntza bezala erabiltzen ditugu proba hauek. Kros denboraldia ere hasi zen, Irungo krosarekin eta bertan Maria Eugik parte hartu zuen," aipatu digu Amaiak.

Lehiaketa nagusiak

Amaiak arestian esan bezala, maiatza dute helburu, "alebinen Gipuzkoako txapelketa orduan da eta infantil mailako proba nagusiak orduan dira. Gainera, infantilak ongi badabiltza Gipuzkoako selekzioarekin Euskadiko jokoetan parte hartzeko aukera dute."

Hala ere, urtero legez, urtarriean Donostiako krosean ere parte hartzeko asmoa adierazi du entrenatzaileak. •



Arg.: Txema Valles

Sariak ehizan eta arrantzan nabarmendu diren Buruntz-Azpi elkarteko bazkideei

Urtero legez, Buruntz-Azpi ehiza eta arrantza elkarteak ehiza eta arrantza sariak banatu zituen.

Larunbatean giro ezin hobean, Josu Sarasola elkarteko presidentek sail ezberdinetan nabarmendu diren kideei txapelak eta oroigarriak eman zizkien. Aurten, Jesus M^a Gonzalez itsasoko arrantzan, Javi Salsamendi zizare arran-

tzan, Eneko Urdanpillera galeperra kaiola eran atalean, Mario Garrido eta Juan Cruz ehiza txikia txakurrarekin modalitatean eta Juan Iraola plater tiroketan izan dira onuradunak.

Eta hauetaz gain, sari bereziak ere egon ziren Antonio Carrasco beteranoarentzat, Ioritz Gonzalez jubentzenarentzat eta Laura Martinenzat. •

Egunero

Erakusketa

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa Mundu bat GKEren eskutik. Jalgi kafe-antzikian egun osoan.

Erakusketa

EUSKAL FONDOAREN erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Ostirala, 20

Kontzertua

TXINTXARRI ABESBATZAREN emanaldia Danok Kideek antolatutako V. Musika Topaketan barruan. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Aurkezpena

VIII. MULTIMUSIKALAREN aurkezpena eta ondoren Petti eta Arramazkaren kontzertuak. Jalgin, 21:00etan.

Kontzertua

TRANSISTORES 50 taldearen emanaldia. Talde honek Donostia hiria lehiaketan parte hartu du. Abend kafe-antzikian, gaueko 12etan.

Larunbata, 21

Kontzertua

SUSTRAI TABERNAREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko *Gar-*



Inprobisazio dinamikoak kulturetxean

R.S. FACTOR (JAZZ) taldearen emanaldia. Talde hau Musikene zentruan jaio zen, jazzeko departamenduan hain zuzen ere. Bere musika inprobisazioan oinarritzen da bai standard poplarrekin edo abesti originalekin, beraien zuzeneko oso dinamikoak da.

GAUR, OSTIRALA
20:00ETAN
KULTURETXEKO KAFETEGIAN

gantas desgarradas eta *Clavo oxidado* taldeek emanaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Kontzertua

PILAR CATALINAREN emanaldia AMAIA ZIPITRIA pianojolea lagun duela eta Amaia Lizarragaren kolaborazioarekin. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

Igandea, 22

Zinea

SHORT LA PIEDRA MAGICA haur-errentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 eurokoa da. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Astelehena, 23

Kontzertua

SANTA ZEZILIAKO KONTZERTUA eskainiko du Udal Musika Eskolak. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.

Asteazkena, 25

Diaporama

ETIOPIA ETA KENIARI buruz arituko dira Diego Egizabal, M.Karmen Ormazabal eta Ane Barrenetxea. Jalgi kafe-antzikian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 27

Kontzertua

THE HOLLY'S taldearen emanaldia. Abend kafe-antzikian, gaueko 12etan.

Antzerkia

EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOKO emakumeek antzezlan bat eskainiko dute. Kulturetxean, 19:30ean.

Kontzertua

JON MINER ETA INTXIXU LOTIEN BANDA. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Larunbata, 28

Jaialdia

JALGUNE ELKARTEAREN JAIALDIA. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:30ean.

Kontzertua

SUSTRAIREN LEHENENGO URTEURRENA ospatzeko *Pedrada en la cara* eta *Obito* rock taldeek emanaldia eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etan.

Igandea, 29

Zinea

VICKY BIKINGOA haurrentzako filma eskainiko da. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan. EUSKARAZ

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Beltzak taldeko loteria

Beltzak rugby taldeak gabonetako loteria salgai jarri du. Zozketatuko den saskia ikusteko eta loteriako boletoak eskuratzeko aukera Jalai tabernan izango duzue. Rugby taldeko kideek ere izango dituzte boletoak saltzeko, beraz, edo Jalai tabernan, edota rugbyko kide bati eskatu zure boletoa. Loteriari esker lortzen den diru guztia Beltza Rugby eskolarentzako izango da.

Erraustetaren kontrako marrazkiak

Zubietako gaztetxo batzuk hamaiketako eta erraustegiaren kontrako marrazkien margotzea antolatu dute bihar, hilak 21, 11:00etatik aurrera. 12:00ak aldera haur eta gaztetxoek elkarretaratzeko eta prentsaurrekoa egingo dute. Ekintza hauek eliza inguruan

ospatuko dira.

Oztabide elkarteko bilera

Oztabide auzo elkarteak Arrambide eta Oztaraneko bizilagunei jakinarazten die, azaroaren 21ean, larunbata, goizeko 11:00etan bilera dagoela Oztabideko lokalean (Oztaran ikastetxearen atzealdean).

Zakurra galdu da

Pastor aleman bat galdu da Zabaleta auzoko Hernani bidean. Dei du izena eta txipa dauka. Aurkitzen duenak deitu dezala, 943 365 297.

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 kordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix eta Sustrai tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildu-

tako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen laguntzeko bideratuko da.

Haur baten zapata azaldu da

Urriaren 25ean ospatu zen Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, 3-6 hilabeteko haur txiki baten zapata marroia azaldu zen Jalgin. Galdu duenak Ttakuneko bulegoan jaso dezake.

Burunzpe elkarteko loteria

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeko Burunzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

Oztabideko loteria

Oztabide auzo-elkarteak Arrambide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die egube-

rritako loteria salgai dagoela.

19827 zenbakia da eta 3 euroko partaidetzan eskatzeko aukera dago. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue.

Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaketela goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela notatsun agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Aurten, 8 urtetan lehen aldiz *Multimusikala* kolokan!

■ Herritarren laguntza eskatzen dute antolatzaileek *Multimusikala* ospatu ahal izateko

MULTIMUSIKALA

Aurtengoa, *Multimusikalaren* 8. edizioa izango litzatekeena, arriskuan egon liteke. Antolakuntzan buru belarri diharduten gazteek, soluzio eta irtenbide bila herritarrengana jo nahi dute laguntza eske.

Nola gogoratzen duzue *Multimusikalaren* sorrera?

Oraindik gure artean hitz egiten hasten garenean gogoratzen dugu *1. Gau Multimusikala* antolatu genuen hura Txorimalo Gazte Kolektiboaren lehen urtemuga izan behar zuen hura, herriak zuen aisialdi faltari eta musika eskaintza eskasari erantzun zion festa eta aldarrikapen egun bihurtu genuen hartaz. Autogestioa oinarri, traba guztien gainetik, herriari musika eskaintza zabal, anitz eta xumea eskaini genion egun hura.

Eta nola aldatu da?

Urtetik urtera, herriari eskaintza zabalagoa eskaini nahian gure burua gehiago behartzen jardun gara, buruhausteak buruhauste, azkenean, gero eta musika eskaintza fresko eta zabalagoa eskainiz. Azken hau, herritarrek aditzera eman digutenaren arabera.

Lehenengo urtean, *Multimusikalaren* muga guztiak hautsi genituen Okendon jarri genuen karparen bidez, musika oinarri duen jaialdia multi kulturalaren dimentsioa eman. Bertan azoka, musika tailerra, babarrun jan herrikoia... antolatu genituelarik.

Aurten zortzigarren urtea izanik, zer dela eta ikusi duzue *Multimusikala* kolokan?

Hainbeste urte eta gero, hainbeste lan, hainbeste buruhauste, hainbeste komeri, hainbeste traba, hainbeste lorpen eta gero, jaialdia eraldatzen ari dela ikusi dugu, eta baita antolatze beharrak ere.

Eta orduan, non dago arazoa?

Egia esan zoriontzera herritar asko gerturatzen zaizkigu, jaialdi hau oso txukuna dela eta horrelakoak esanez, baina herritar hauek ez dute egun honen atzean dagoen lan guztia ikusten.

Gure akatsa ere izan da, ez dugu jakin herritarrengana



lax lehenengoz karpa jarri zen Okendo plazan eta *Multimusikalak* ekimen ugari antolatu zituen bertan, azoka, bazkaria...

laguntza eske joaten eta orain herritarrek *Multimusikalari* buruz duten oharpena eta hau gauzatzearen artean dagoen distantzia oso handia da.

Herritarrek uste dute dena erraz, arazorik gabe joan dela, eta nahiz eta jaialdia bera oso ondo atera den, lehengo urteko ikaragarria izan zen, atzetik dagoen gainontzeko guztiak beste kolore bat du. Urte guztia behar izan dugu gainean genuen zama ekonomikoa ordaindu ahal izateko.

Orduan herritarrek *Multimusikalarekiko* duten ikuspuntua okerra da?

Ez, ez da okerra, *Multimusikalak* herrian, nahiz herriatik kanpo oihartzun eta onarpen handia du, ilusioa eta parrandarako gogoia helarazten du!

Lasarte gazte eta ez hain gazteontzat egun seinalatua izan da, eta izaten jarraitu behar du.

Baina herriatik eta herriarentzat sortu zen jaialdi

honek autogestionatua izaten jarraitzeko herritarren laguntza behar du.

Arazoi nagusia *Multimusikalaren* autogestionatzeko dagoen diru premia izan daitekeela esan dezakegu?

Ba oraintxe bertan bai. 30 talde eta sortzaile inguru ekarri, haiei jaten eman, ordaindu, musika ekipoak alokatu, karpa alokatu, bazkari herrikoirako mahaia eta aukerak alokatu, zerranda oso luzea da, eta guzti honi aurre egiteko laguntza beharrezkoa da.

Gaizki ulertu ez badut, arazo ekonomikoa behin gaudenik, *Multimusikala* antolatzen jarraitzeko prest zaudete?

Dudarik gabe, noski baietz! Herriak laguntzen badu egingo dugu! Eta horretarako proposamen bat prestatu dugu.

Zein proposamen?

Lehenik eta behin, herriko taberna guztietan *Multimetroak* jarriko ditugu, hauek *Mul-*

timusikalaren benetako egoera ekonomikoa zein den ikustean lagunduko duena.

Era berean, Kuadrila bonoak jarriko ditugu salgai. 50 eurotakoak izango dira eta herriko koadrila bakoitzak nahi izanez gero eskuragarri izango ditu.

Honetaz gain, 1.000 rifa aterako ditugu, herriko jatetxe batean bi pertsonarentzako afaria zozketatuz.

Eta azkenik, multibonoak ditugu. 20 eurotako bonoak izango dira hauek, eta nahi

“ Baina herriatik eta herriarentzat sortu zen jaialdi honek autogestionatua izaten jarraitzeko herritarren laguntza behar du

izanez gero 2101 0048 20 0125573386 kontu korrontean dirua sartuz, edota hurrengo egunetan jarriko ditugun mahaietan erosteko aukera izango da.

Multibonoak esan duzu?

Bai Multibonoak. Bakoitzak bat erosten badugu aurten herrian, karpa, pailazoak, elefanteak, tigreak... eta denetik izango ditugu!

Orduan aurten zer?

Ba aurten guztiok hausnarketa bat egin eta *Multimusikalak* 20 eurok baino mila aldiz gehiago balio duela, eta herri honek hori eta gehiago merezi duela konturatzen bagara, *Multimusikalean* ikusiko dugu elkar. •

8. *Multimusikalaren* etorkizuna gaur Jalgi Kafe Antzokian

Goiko elkarrizketan irakurri daitekeen bezala, *Multimusikalaren* aurtengo edizioa kolokan egon daiteke. Herritarren laguntza behar dute antolatzaileek, eta lortuz gero, aurten *Multimusikalaren* 8. edizioa izango dugu Lasarte-Orian.

Egungo egoera azaltzeko, gaur bertan gaueko 21:00etan, jaialdiko antolakuntzakoek prentsaurrekoa antolatu dute Jalgi Kafe Antzokian.

Prentsaurreko honetan jakingo dugu aurten *Multimusikala* antolatuko den ala ez.

Honetaz gain, aurreko urteetan parte hartu duten talde eta antolatzaileen testigantzak eta aurreko edizioetako irudien bideo-muntaiak jaialdiko giroa eta une paregabeak gogora ekarriko dituzte.

Ostean, iluntzeko 21:30ak aldera, *Petti* kantautorearen eta *Arramazka* taldearen kontzertuak izango dira entzungai Jalgin bertan.

Multimusikalak bizi duen egoeran murgiltzeko eta musikaz disfrutatzeke aukera bikaina beraz gaur gauekoa. •